



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

14 Urtea

+

1932'ko Oñila

+

161 Zenbakia

¡GORA AURERAPENA!



ORA auferapena! esaten dute bein baño geia-
gotan atzeraka dabiltzenak.

Gora auferapena! ta ofetarako bideak era-
kusten dituzten askori, galerazi egin bear.

Gora auferapena! ta gobernuak ezer ere
ordaindu gabe bizi diran eskolak itxi nai.

Obeki adieraziko luteke, Bera Jainkoa! ar-
gi ta garbi esan ta.

Eztegu ojuriak bear; egiteak bear ditugu.
Erakusteko ikastetxeak, eskolak, jafi.

Ori egin du Eliza katolikoak bere asieratik.

Jesukristo gure Jaunak Apostolui esan zien: Juan ta munduko efi guztiai nik
erakutsitakoa gordetzen erakutsi. Apostoluak eginalean munduko bazter
guztietara zabaltzen dira: itzez erakusten dute, idazkien bidez erakusten du-
te ta eztira au egin ta asetzen. Bergier'ek dionez, Juan Apostolu ta Ebanje-
lio-gileak gazteai erakusteko Efeso'n ikastetxe edo eskola bat jari zuan: ber-
din egin zuan Apostolu onen ikasle zan Esmirna'ko Potikarpo'k bere mende-
ko elizan, Esmirna berean.

Geroago Elizak eliz-gizonai uskurtz edo erlijio gauzak erakusteko jafi
zituan: geroxeago apaiz izan nai zutenai eliz-jakinduriak eta besteak erakus-
teko ikastetxe ospatuak izan zituan, batez ere, Antiokia, Edesa ta Zesarea'n

eta beste leku askotan. Gotzai edo Obispo bakoitzaren bizilekuaren ondoan ikastetxea ta liburutegi bat arkitzen ziran garai aietan. Eskola oietara elizgizonak ezezik, nai zuten beste gañerakoak ere juaten ziran; oien artean aundizki eta eñege odoleko asko.

Auek ziran garai aietan, iltzeko zorion bufuka egiten zuan gezufezko jainkoen uzkurtz edo erlijioa garaitzeko Elizak ibiltzen zituan izkiluak.

Au, ikastetxea ta irakurgaiak dira gaurko eguneko indafik aundienak orduan bezelaxe, batez ere eskola.


Galdetu Elizaren boferoen ezpata kamustuai. Lepoak moztu ta moztu odolez ase ziran. Bazter guztiak kristauen cdolak goritu zituan. Baño etziran ixildu Apostolu ta ondokoien miak; bizirik gabe bat gelditzen ba'zan. ondorengoak, Jesukristo'k adierazi bezela, erakutsi egiten zuan ta ezpatak eskuetan zituzten bofero gogofen uzkurtz edo erlijioak, garaiturik lur jo zuen. Geroago oraindik lekaide edo prañeen etxe-alboan eskola bikañak jaso ziran inguruak bere ontasun eta jakinduriatz betetzen zituztela.

Ipar aldetik etofitako efi basatiak Europa guztian zabaldu ziranean, oiek gorde zituzten beren liburutegietan jakindurizko liburuak: oiei eskefak etzan jakinduria erabat Europa'tik betiko juan.

Euskalefian jakinduriaren kabi bat Leire'ko lekaidetxe edo komentu ospatua izan zan: bertan izan zuten bere gordelekua abertzaleak eta eliz-gizonak, kristauen etsaiak Euskalefiko efi askotaz jabetu ziranean.

Bertako Abade eta Gotzai edo Obispo zan Santxo jaun argiak ots egin ta eliz-probintzikot Gotzaiak batzafe bat izan zuten 1022, urtean, Aita Santuaren ordekoa buru zala; an artu zuten erabaki batek adierazten zuanez, gure Efiko Gotzaiak eta eliz-gizonak etzeuden atzeratuak: itxurak eliz-ondoan kristau-ikastetxea arkitzen zan.

ASMAKIZUNA



Asto gañean Joxetxo. Ta znon da bere amatxo?

Lenbizioan Gotzai edo berak ikastetxeen buru egiten zuten: baño geroago berak ezin zutelako ikastetxeak zuzentzeko apaiz bat aukeratu zuten Gotzai jaunaren mendeko efientzat.

Olaxe gero Ikastetxe Nagusiak, Unibersidad, Elizaren itzalpean jaio ziran. Ta, ala guztik ere, gure sasi-jakintsuak esango dizue, apaizak eta, Eliza jakinduariaren etsaiak dirala...

Berak bai ezer ikasi gabe asko dakite: ez al dute egunero beren pape-



Jesus'en ikasteak apaltegian zeuden Ama-Birjiñarekin, suzko mingain antzean Espiritu Santua jeltzean.

ra irakurtzen. Eta, irakurle, entzun al dezu eguneroko paperak gezufik esaten dutela? Nola nai dezute erlijioaren etsaiak, Jainkoaren etsaiak diran parerak gezufak esatea? Aingerutxo oiek olakorik egin..? Bai zera!

Eta geroko urteetan zer egin ote du Elizak?

Erakutsi, ikastetxeak jaso. Erakusteka praile ta monja-alkartasunaz sortu.

Ta Erlijioaren etsaiak zer egin dute?

Iskilu ikaragari ori eliz-gizonai eskuetatik kentzeko alegiñak egin.

Apaizak eta praileak... elizan sartu ta santu batzuk bezela egon ditezela. Ori da bere lekua.

Orixen nai *Jakinduariaren adiskideak*. (nai duanak sinistu dezala). Agintariak erakutsi bear dute. Esan nai du: guk erakutsi bear ditugu guk nai ditugun gauzak, *erlijioa ez besteak*. Legenara edo lepra baltz eluteke geiago baztertuko.

Katolikoak, kristauak, *Eliza jakinduariaren adiskidea da, ez etsaia*.

Eutsi eskola kristauai! Entzun gure Artzairen deadafa. Ekin Jainkogabe-ko eskolai. Egin alegiñak erlijioa ikastetxetatik ez botatzeko! Egin alegiñak Jainkoa eskoletan beriz sartzeko! Lagundu al guztia eskola kristauai!

OSINBURU.



NERE NAIA

Ibai ertzez-ertz nabilen bitarten
doakizu gaur nere nai bizia:
enadak egan artzen dun ur tantoa,
ipar-aizeak urun daraman
zuaitz-ostoa.

Ibai gañeko zumañ-adañan
zintzilik jartzen du
gorastafoak (1) kabia.
¿Nork egin lezaken
ludi ontako ibai gañean
onela bizi-tokia!

Goian zerua, luña nerepean,
kulunka nenbilke
aizearen eskuetan
Aruntz onuntzka aizearen mende,
ekaitz-ofuen ez nintzake beldur.
Urak dakarzkiken ostoekein bat
balijoazke nere espa guziak,
¿zeñen lasai bizi ninteken
abestuz beti zorian-lekoa!

... ..

Ibai ertzez-ertz nabilen bitarten
doakizu gaur nere nai bizia:
enadak egan artzen dun ur-tantoa
ipar-aizeak urun daraman
zuaitz-ostoa.

Gazteluntza.

(1) Garastaf oa-ofopendola

PADUAKO ANTONIO DEUNA



Beñero Italian (1.227)

SISIKO Prantzisko deunak, ezagutu zuenetik, maitetasuna aundia izan zuen bere gogozko seme Antonio deunarentzat eta beñi baño geiagotan erakutsi ere egin zion maitetasun ori. Gutxi gora-bera, garai ontakoa da gertaera au: Antonio deuna Arelateko lekaide-batzafari, Jesusen gurutze-buruan Pilatok ezafierazi zuen «*Jesus Nazarenus Rex Judeorum*» artaz zenbait azalpen egiten ari zan garaian, entzuletako batek goratu zituen bere begiak eta, artean bizirik Italian zan Prantzisko deuna ikusi zuen, bere jafailearen itzaldia entzutera etofita. Aidean zegon eta besoak zabal-zabalik zituela. Gero batzarkideak onetsi eta ezkutu egin zan.

Prantzisko deuna, 1.226 urteko ufilaren iruan joan zan lufetik zerura; eta prantziskotar Anaidi aundiaren Aita eta Nagusi bera zan da, aren ondorengo autatu bear zan Anaidia eraentzeko.

Anaidiaren Zuzenbideak agintzen duanez, Pentekostetako Batzafean autatu bear zan guzien Nagusia; eta Batzar artara joatera beartuak ziran lekaiderkietako Nagusi eta Zaitzaiek. Antonio deuna, Limoges erkiko Zaitzaiek zanez geroz, beartua zan 1.227 urteko Pentekostetako Batzafean joatera. Eta Pazko ondoan abiatu zan Prantziatik, ofilaren 30 baño len Asisira irixteko; Batzar nagusia uri artan egin bear zan da.

Asisiko Batzar nagusi artan, Emilia erkiko nagusigoa eman zioten Antonio deunari eta iru urtez izan bereartako nagusi. Eta bere menpekoak efukitasun eta samurtasun aundiz eraendu zituen.

Garai artakoa izan bear du ondorengo gertakari afigafi onek: Antonio deuna bidez zijoa bere bizi-lagun batekin. Jatordua aspaldi joana zuten, efi koşkor batera eldu ziranerako. Biotz oneko emakume batek ikusi zituen jainkozkoko bi gizon aiek; eta artean, bear bazan, baraua austekoak izango zirala ta, jaten eskeñi eta bere etxera eraman zituen. Ogia eta ardoa maian utzi eta auzora joan zan leiafizko (*kristalezko*) txol (*koka*) baten eske; eta bere esualdi artan, ardo-upelaren ūfa itxitzea aztu eta ardo geienak iges egin zion. Garai berean, Antonio deunaren lagunak, ustekabean, auzotik ekafitako txolaren oña autsi egin zuen.

Andrea oartu zitzaion upelarekin gertatu zitzaionari eta, atsekabez berik, Antonio deunari esan zion. Gure deuna, burua bi besoen gañean etzanda, Jaungoikoa otoizteari eman zitzaion; eta berealako batean, bi puska egingdako txola eta bere oña bat egin ziran, ufatuaren itxurarik ere gelditzen etzala. Afigafi ori ikusita, andrea upela ikustera joan zan; eta len erditaraño zegon upela bete-bete eginda arkitu zuen. Antonio deunak beñiz, apaltasunak eragiñik, bereala aldegin zuen andik.

Omen Jaungoikoari eta bere mirabe zintzo, Antonio deunari!

Eñeñotzu.

¡AGUR TONTORAK!


■ Amonak esan zidan. Aintxinetako garai zafean miragaritzko gertaerak afitu omen zuten Euskaleria. Uso antzeko talde zuri bat ageri omen zan ipar-mugatik onuntza; itsasoz beste aldetik edo, ez jakin nondik; baña biotz-begien zoragari omen zan. Eta geldiro-geldiro, zerbaiteren bila balebil bezela, Euskalefiaren gain bira batzuek egin ta gero, zerugoitik jetxi zitzaion odei me-zurizka batean bilduki, Aitzkoñi-aldean pitinka-pitinka ixkutatu omen zan, zorrioneko atsegin-itxuretan... Amonak esan zidan.

Ontatik luze aundi gabe, Ofileko goiz-ufatze batez, era berian talde uraxe befiren beñiz agertu omen zan; baña lenbizikoan bañ liliuragariago bear bada. Oraingoan. bada, argi eta edef zerion Norbait, ostbigun eta eresi zolien erdi, ba omen zekarten... Goiz artan lafera bide zeuden artzoiñoak, makil-buruetan ukabilak tinkatuki, begi eta belari zegozkien. Eta talde zuria, bitarte, ba omen zijoan, ba omen zijoan, ufetxindor-saila bezela kantari, eluf-begiak bez'n dirdari, usotxoak lez egari. Eta Aloña-mendira zanean, tink egin omen zuan... Amonak esan zidan.

Zer litzaken ori? Ene amonak esango: leen-aldiko agerpen ura, Zeruko Efeñiak bere egontoki bila bidalitako aingeru-taldea besterik etzan. Eta lurbira osoa, astertu-ala astertu ta ere, iñon ez arkitu, emen, gure Euskaleri maite ontan bezelako egontoki edef eta maitale zintzorik. Eta atseginka ta poztari, luf ontara jetxi zedila iragartzera itzuli zitzaieten... Bigafengoan, ordea, aingeru beraietaz inguraturik, Andre Maria etofi zitzaigun, euskaldunon zaintzale eta bitarteko izatera.

Jaso, euskalduna, zure begiak gure tontof-goyetara eta ikusi zenbateraño maitasuna izan digun Zeruko Amak eta nolako zaletasun eta jayeraz erantzun diogun gaurdaño euskotafok. Begira: tontof geyenak bere Irudiz ornituak dagerz.

Agur, Ama eta agur, tontofak! Loramendi An.



Beatus vir qui non abiit...

I'go Salmoa.

Laburpena.—Zein zorionekoa dan, gaiztoekin bat ere nasi gabe, beti Jainko-legearen bidetik dabilen gizona! Zorionekoa da mundu onetan, Jainkoak ongi ateratzen baitu bere egiteko guzietan. Zoriontsuago izango da beste munduan, bere ongi-eginen saria artuko duenean.—Zein bestelakoak diran gaiztoak! Mundu onetan zenbait aldiz ongi ta zorionean bizi dirala badirudite ere, Jainkoak ezagutzen ditu aien asmo okeñak; ta aiei ere emango die noizpait beren ordaña.

Zoriontsu da gaiztoen onuak
ez dараizkiana,
obendien bide makuretatik
ez doan gizona,
ta isekarien biltzar-tokietan
esertzen ez dana;

Bere atsegin guzia Jaunaren
legean daukana,
ta beroren legea gau ta egun
gogoan duana.

Alakoa da, ur-ertzean landatu
ta bere garaian
arnari yoria ekartzen duen
zuaitzaren gisan.

Zuaitz ori etzaio ostorik galtzen,
ta gizon oñeri
artzen dituen lanbide guziak
gertatzen zaizko ongi.

Gaiztoak beriz ez dira alakoak,
bai ordea aizeak
luraren gañetik aizatzen duen
autsaren baldeak.

Gaiztoak ezin dute iraungo zutik
epai-egunean,
obendiak ere ez dira jariko
zuzenen bilkuran.

Zuzenen burubide ona Jaunak.
ezagutzen baitu;
gaiztoen burubide ta asmo okeñak
ezetatzen ditu.

Iraizoz-ko Polikarpo A.


Totus Formosus

Aldareko Sakramentu Deuna'ren goralpenaz.


«Cantus Varii Romano-Seraphici» liburutik artua eta

Donostiar Jose And. Abak ereskidetua.


Zein e - der zakiz-kit Je-sus o-na! Zein e der za kiz - - kit
To-tus for-mosus es, bo-ne Je-su. To-tus for-mo-sus es,



Je - sus o - na. Zu-re zau-ri-ak a - fosak, Jesus nê ze-ru - a!
bó - ne Je - su. Vülne-ra tu - a ró - se - a, pulche-rri-me Je-su.



A - gur da-gizut, oi - - ei muñ e-ginda. Ne - re bi-otz ez - - - -
E - go sa-lu - to et vé - - ne-ror il-la. Tu dulcédo cor - - - -




- - - ti - a - zu Je-sus ez-ti-tsu - - a!
- - - dis me - i, dul - ci-ssi-me Je - - su!
Oi e-ne-txo, Je-sus mai-te-a!
O di - le-cte, di - le - cte Je-su!



Je - sus go-zo gozo nere a - - ni ma-ren bi-zi - - - a! Jesus Zu-
 Tu, vi - - ta á - nima meæ, su - - a - ri - ssime Je - - - sul Tu a - má



ne-re mai-te ba-ka-ra! Oi Je-sus! e-der - tasun i - tu - - ri - - a.
 tor mi u - ni ce Je - sul O spe-ci - o - se spe-zi - o - se Je - sul




Ni-re Je - sus gu - ru - tze - tu - - a! Jesus bi-guña, su - tu ne-re bi-
 O Je - su, pro me cru - ci - fi - - xe! Accénde cor meum pi - - i ssi me-



- - - o - tza! Zu-re mai-te-ta-su-nez Jesus su-bi - - zi-a! Oi Jainko a-ren
 - - - Je - su A mo-re tú-o, ar-den ti-ssi me Je - sul O Jesu Christe



Seme Kristo Jesus! Gutzaz i - zan e - za - zu - - e - - fu - ki - a
 Fi - li De - i vi - vi! Mi - se - ré re, mi - se - - ré - - - - re no bis.



Biotz Aundia



iotza ezagutzeko bide bat, itzak dira. Ikusi beian ipintzen ditudan itzak eta nerekin batean bere idazleak biotz aundia duala esan beaŕean arkituko zera. Irakurŕi eta ausnartu itzazu: *Heraldo Alavés*'ek ekaŕi ditu ta nik euskerara itzuli ditut.

«Eusko-Alderdi Jeltzaleak (Nazionalistak) egun auetan bere sortzeko Ufezko Eztaiak ospatzen ditu.

Gizalegeko bear ezti batek, au dala-ta biotz-biotzetik zorionak ematera bultzatzen gaitu.

Gu-askitzale edo tradizionalista euskaldunak. Eusko Alderdi Jeltzaliak edesti (istoria) ditziraduna daukala ezin ukatu degu: edesti onegatik beŕogei ta amar urte auetan Uzkurtz edo Erlijioaren eta gure Eŕiaren askitzen (tradizioen) auean asko irabazi edo merezi izan du.

Oŕegatik, katolikoak eta askitzale edo zaŕontzale euskaldunak bezela, Eusko-Alderdi Jeltzalearekin batean, beretzat ain maitagaŕi ta aintzatsua (gloriosua) dan aldi onetan bere pozaldian lagun egiten diogu.

Ikasbide atsegin bat.

Jeltzaleen (Nazionalisten) Buruak gure Eŕiko lagun guzientzako ongina-iez betetako idazki bat argitaratu du.

«Guretzako pake eta zorionezko egun onetan—dio idazki aitatuak—ez ditugu unetxo bat ere gure gogoan lenagoko bidegabe eta goŕotoak.

Ala izan bear luke ta ala izango da gure aldetik jeltzalien (nazionalisten) jai egun onetan ezezik gure eŕiketa edo politika-bizitzako egun guztietan; eta batez ere, buŕukak, gogozko «guda edo gefa santuak» bi gudarozte edo ejertzitu aundien, Jeltzaleen (Nazionalisten) eta Askitzale edo zaŕontzalen alkartutako lana eskatzen duten egun doakabe auetan.

Gure alderdi edo Partiduko Buruen erakutsiak ondo, geldi gabe eta zearo ezagutzen ditugu: eta iñortxok gezurtatzeko bildurik gabe, lazkeria, ikusi-eziña gure alderdi ta Eusko Alderdi Jeltzalearen artean ereiten duten askitzale edo tradizionalistak gure Buruak esandakoa betetzen ez dutela diogu.


Orobat Jeltzaleen Nagusien zuzendarien erakutsiak ezagutzen ditugu. Aietako batzuekin-Lege-Etxeko aldun edo diputaduakin-epopeia euskaldunaren ordurik samin eta aintzatsuenetan (gloriosoenetan) bizi izan gera. Badakigu Alderdi Zaŕontzale edo Tradizionalistaz uste dutena, eta ezagutzen degu biok alkaŕengana uŕeratu eta batera lan egiteko daukaten gogoa bizi taa naitaŕa.

Itza gogofa izan aŕen, bi alderdi edo Partiduen artean izan bear luken

adiskide antzeko artu-emanen zaldi edo zizaña ereiten ordu zail auetan da-biltzanak saltzaleak (1) zalantzik gabe deitzen ditugu.

Saltzaleak dira alkarenganako itzala ta maitetasuna izateko agintzen duten alderdietako (partiduetako) agintarientzat; saltzaleak oraingo buruka bere indarrek zatiturik dituala ezin jasan dezaken Eus-kalerientzat; saltzaleak bi alderdi edo partiduetako ikuritzaren (lema-ren) zatirik nagusia dan Jaungoikoarentzat; saltzaleak gizon guztiak ta batez ere bere ikasleak geranok alkar maite izateko agintzen duan Jaungoikoarentzat.

ASMAKIZUNAK



Txito polit oiek or dituzu txiloka;
Non ote dan bilatu beren ama koloka.

katolikoen arteko pakea eskatu.

Anaiak bezela Eusko-Alder-di Jeltzaleari gure zorionak be-riz ematean, gure alderdiko bat-zuk egin al izan dizkioten bi-degabeak betiko aztutzeko, afen, eskatzen diogu.

Gure alderdikoai ere jeltza-leen batzun egin al izan dizki-oten bidegabeak betiko aztu-tzeko eskatzen diegu.

Eta bi alderdi edo Partiduak, Jaungoikoaganako eta euskale-fiaganako maitetasunaz estu-estu baturik, uferatzen, urbil-tzen ari diran buruka aintza-tsuetan buruka egin eta garai-tzeko prestatu gaitezen.»

Onerañoako itzak *Heraldo Alavés*'ek agertuak dira.

‘Zein itz edefak! Itz eder auek irakurtzean ez al zaizute bio-tza zabaltzen? Ez al du biotz aundia au idatzi duanak? Ira-kurle, zerana zelara ausnartu itz oiek. Al dezuna pakearen alde lan egiteko asmoa artu. Ta, gutxiena, egunero Jaunari

ARBELAITZ

(1) Traidoriak

Ilabete onen amairugafen egunean Meza bat emango da
ZERUKO ARGIAREN idazle, irakurle, ta ongile
guztien alde, Antonio Santuaren aldrean.

Pingliang'tik 4-III-1932

Intzar Damaso A. A.
IRUÑAN

Nere biotzeko Aita Agra:

Lau ilabete ortik atera giñala, onuzkero zerbait gure befi jakin naiean egongo dira noski «Zeruko Argiaren» irakurleak.

Bideak, luzea-ta, jakiña, izan, izan zitun bai bere nekeak, baño ez idazten asteko añekoak. Ofegatik ez dizut lenago idatzi.

Orain befiz befi geiegi dituk gutxian nai nuken bezela sartzeko.

Gripe tzar orek laister ikasi zun emengo bidea: gure orpotik etofi zala zirudin. Gu onera etofi ta andik lau egunerako ementxe agertu zitzaigun baimenik gabe. Zarta au ta ura lufera, geienak bota gaitu, ez etofibefiak bakafik, bai ta lengo zafak ere. Gure ongi-etofia ematera etofi zitzaizkigun lagunai ere zartako edefa eman omen die. Julian A'ri aundiena. Gizajo oni emen gurekin egun atsegin batzuek egitera etofi-ta zegoan bitartean, bere estaziotik 190 duro lapurtu omen zizkioten. Orixe bai gripe edefa!..

Emen gripekin lafiena ibili diranak: nere lengusu, Aldabar Gregorio A. Nagusia, Berardo A., Alfonso A, Conrado ta Frantzisko Anak.

Gofia ta baztanga. Gaitz bat ez omen dator beñ ere bakafik eta orixe gertatu da emen ere: *goria* (escarlatina) izan du Rafael A'k eta *baztangakin* daukagu mofoi bat. Oso lafi ibili da, baño ateratzen zaigu noski. Afitzekoa da, emengo *garbitasuna* ikusita, nola ez dan beste iñor kutsutu.

Astoa jun eta mandoa etofi.—Gaitzak guregandik bota ditugunean, gaitza baño okefagoa, *guda* agertu zaigu efian ustekabeen. Aspalditik bagenekin Kansun zebifela, baño ez gendun asko uste ofen ixilik bertarañotuko zitzaigunik.

Juan dan ilaren 22'ko goizeko ordubatean tiroka asi ziran efian bertako gualariak alkañen kontra. Efiko gualariak bi aldetakoak ziran: Kansukoak eta Shensikoak. Oiek, beste aldekoak baño azkoz gutxiago izan afen, laister asi ziran Kansutafak ziara garbitzen: gudadresnak askoz obeak bai zituzten. An baziran pusilak, eskuko suagak (bombas de mano?), ametralladorak, Kañoiak, danetatik. Alkar iltzeko asmaziotan emen ere, or bezela, oso aufe-ratuak daude.

Amabi orduko gudaldia izan zan. Alde bakoitzetik ilak eun bana baño geiago; zaurituak befiz nork daki? Azkenean kansutafak aldegin zuten, baño ez efiko gudaletxerik onena su ta gar kiskaltzen utzigabe.

Otsoak arditegian.—Goizeko 4'etan sei gualari goiz artan bertan gure monja gaxoen etxean sartu ziran lapurtzeafen. Txakufak zaunkaka asi ziran, baño bi tirokin berealaxe isilduazi zituzten. Lapurtu zutena ezta ezer asko, baño monja gaxoen izu-ikara ez da esatekoa... garai artan... oraindik oian zeudela... sei gualari... gizonik ez dagon etxean... tiroka... nai duten guzia afapatzen... oi-oialak, erlojuak, eratzunak batez ere;... bati atzapar-

kada bat ere bota zioten abora, ia an zeuzkan bi ufezko ortzak kentzen ote zizkioten... Egunero etxe artara begitako miña sendatzera etortzen ziranak ziran lapur aiek... Etzuden begitako miñ txafa, ez, garai artan argirik gabe ufezko ortzak ikusteko!..

Beriz ere lapurak?—Emendik aldegindako gudalariak gure eliz bafutiko eñietan lapurketan asiko zirala bildur aundia gendun: ortarako obeak bai dira gudarako baño. Eta alegia: laister jakin gendun Rafael A'ri iru mando eta beste gauza batzuek ostu egin zizkiotela. Eskeñak, gero nagusiakin itzeginda, mandoak atzera bereganatu dituala!..



Txina'ko gure misiolari beñiak beren Buru ta Ellz-Lenenkariarekin. Gañean gurutzea daukanak biall digu eskutitz eder au.

Gerardo A. ere mandoak izkutatzeko lafi ibilia da: oneraño etofi zaigu igeska. Bat bidean kendu egin zioten; baño bai osteria itzuli ere, nagusiak aginduta.

Amets bat?—Alaxe dirudi juañ dan ilaren 25'ean Berardo A. ta neri gertatu zitzaiguna. Atsaldeko iruek aldean atera giñan biok pixka bat ibiltzera. Efiko mufuetako ipaľdeko atera jo gendun. Pixka bat bertaratu giñanean, «ume koxkor ori dagoneraño auferatu ote leike?» alkafi esaten ari giñan. Bai zea! mufu gañean atezai zeuden gudalariak (amabi bat izango ziran) asi zitzaizkigun uxaka, bi baita pusila kargatzen ere. «Barkatu: ez ginekin onerañotu etzitekenik» esanaz, lengo bidea artu gendun. Baño orduntxe bertan ¡pum! tiro bat... «Motel; ori dek bildufa daukatena! esan zidan Berardo A'k; ez adi bildurtu: ori gu izutzegatik bota ditek. Txinañ olaxe dituk.»

(Bukaera urbiľengoan.)

Pedro Bautista A.

Mls. Ap.

Guam'go Agintariaen deia

Joan dan urte guztian Jaungoiko gure Jaunak begi onez begiratu du Guam'go efiā, eta begi onaz begiratzeaz gañera, eman digun laguntza bikaña izandu da. Gure soroak inoiz bañan geyago eman dute, eta zitu obe eta edefagorik ez degu sekulan ikusi. Gaitz gaixtorik ez da agertu eta beste beartasun aundirik ere ez: eta efi guztietan osasun ona eta bizi bide efiā izandu da...



Guam ugarteko gure Misiolariak. 16 Misiolari guziak Euskal-Erikoak. Goien zuriz jantzirik Gotzala, ezkerrean ugarteko Agintaria. Onen ezkerrean Paskual Iruñakoa A. Nagusienaren ordezeko Ikustzalea.

Nolapait ere mesede aundi auetaz gure Jaungoikoari eskefak emateko Guam'go gizon guztiak alkar artu eta bilduko dira Jaungoikoa goresteko: eta bere aurfian auzpeztuko dira esker onak Berari eskeintzeko...

Ofetarako Nik, Guam'go Agintari naizen Root'ar Edmund S. Azaroaren 26'gafenean erortzen dan ostegun ori Ugarte ontako Esker-Otoitz eguntzat autatzen det. Eta Guam'go Efi guztiari adierazten diot egun ofetan nakazari lanik ez egiteko, Jaungoiko gure Jaunari eskefak eman eta beriz ere begi onez begiratu eta lagundu gaitzala gogotik denek eskatzeko.

Au egiztatzeko eta indar geyago emateko nere eskua ezartzen det eta Guam'go señoakin indafa ematen diot.

Agañan (Guam'en) agindua, gaur gure Jaunaren sortzetik 1931'gafen urtean, eta Latefi Batuen askatasunetik berofegi ta amaseigafenean.

Root'ar Edmund S. Guam'go Agintaria.

Nere Euskaldun maite maiteak: Zer induritzen zaikitue emen irakuri dituzuen itz oiek? Norenak diran? Agintari baten itzak: eta Agintari Protestante baten itzak gañera...

Lotsatzen al da Jaun ori Jaungoikoaz itz egiteaz? Ez noski...

Eta ondo jakinaz Jaungoikoaren eskutik bakarik izan dituala Guam'go Efiak ontasun guztiak, nolapait ere Berari eskefak emateko, Esker-egun eta Otoitz-egun bat autatzen du. Esku lan eta nekazaritzako lanak debekatzen ditu, eta agintzen du gañera egun ofetan Jaunaren aurfian belaunikatu bear dala, eta Jaungoikoari, orain arte izan dituan onetaz eskefak emanaz, bere biotz ona erakutsi bear diola, eta beriz ere ona eta erukitsua izan dedin, eskatu bear diola...

Ofen eder zan Agintari au, artzai bat bere artaldearen erdian bezela, bere


eriaz inguraturik, gure elizara etofi ta, Elizan sartu, belauniko jafi eta eriazen izenian Jaungoikoari eskerak ematen ikustia ta aufera ere gaitz gaixto, eritasun, gosete, lur-ikara eta beste edozein kalteetatik gordetzeko berak eskatzia.

Euskalefian arituko dira bear bada zenbait onelako itz ederak entzun ta. Aritu ditezke bai, ez bai dute gutxitan besterik, onela itz egiten duen Agintaririk ikusi...

Nere Euskaldun maiteak: entzun eta ikasi zuek ere. Jaungoikoaz lotsatzen dan gizona, ez da gizon... Eta Jaungoikoaz par egiten duen gizonarekin, kontu eta erne ibili...

Arayozko Artzaina.

Ikasi!... Ikasi!



1. «Agin-ateratzale merke ta ernea, Miñik nai eztuna, betorkit onea» Oyuka zegon bati, agertzen gaztea, Miñez dagonarena egiteko, ordea.



2. «Auxen da agoko miña! Ai ene, lafia! Egunez izan aren izafen argia Ikusten ari naiz ta, izan zuk kupia, Bestela artzera noa lezera bidia.»



3. Sasi-agokogile (1) gutxitxo ikusiak, Egitzat arturikan aren itz guziak, Antxen igaro zitun istilu goziak Aunditsu ura kentzeko asmakur bidia.



4. Gizona lafi-lafi jafi zuanian Ezur bat atera zun; au bai zun barnian, Agotikan, esanaz: «asi orain lanian Ago-miñaz zer dakin jakinen gahian.»

Sasi—agokogile—dentista no de oficio. Agoko—dentadura (A Nb.)

«AITA NOLAKO, SEMEA ALAKO»

Ama onak kanta-kantari aurtxo txikiari lo afazi dio... lo dago... ¿ainge-
ruekin ametsetan ote?..

Etxeko jaunak gudari-buru trebeak, gizon mardulak, ementxen gera po-
zez dio, etxera etofi danian. Bazen ordu... izerdi patsetan natorkizu emaz-
tetxea eta... Kendu ditu, bai azkar, daramazkin gudarako tresnak.

Gero aurtxo txikiari beti bezela muxu eman bear, eta bulafian ematen
dio.

Leonidas, gudari-buru mardul, zintzo onen izena.

Zergatik semetxoari bulafian muxu.

Semetxoaren biotza Espiritu Deunaren bizitza eta elizatxo dela ze-
kielako.

Ofa or *Leonidas* gizonaren semetxoa azirik. 17 urte ba ditu: *Origenes*
bere izena.

Kristaua uxakutzen eliz etsaiak dabiltz: kristau guziak garbitu bear
emen dituzte.

Leonidas, Aita zintzoak bere burua baitegi edo kartzelan ikusten du...
Gizagaxoa! Kate gogofez bere burua lotu ezkerotzik emaztea eta seme-ala-
batxoak eztauzka ikusirik! Bai zarata aundia *Leonidas*'en etxean. Aita ofela
ikusi orduko *Origenes* seme onak aitaren beztefera etofi nai... Amak eta
bere senideak negafez galazi diote eta igesi egiñ etzan, anaiari soñekoak
gorde dizkiote.

«Idatzi bear diot ba aita gizajoari Origenes'ek dio eta, eskutitz ezin esan
ala xamufa, aitari bialtzen dio esanaz, zorionak ematen dizkiola, jaiera biziz
andik aufera agurtuko dula eta zeruan izango dun zoriontasunaren jabe nai
duela izan aitatxo bezela. Gañera aitatxo—esaten dio: amatxori lagunduko
diot: anai-afebak ere nere kontu. Zu aitatxo, Jesus maitiaz oroitu zaitez bai
eta maite dezulako zure bizia eman. Agur aitatxo. Muxu, negafez ematen
dizu zure seme *Origenesek*».

Ara or aziera onaren emaitza.

Seme eta alaba buru afoari gurasoen mendean egon bear eztuela irudi-
ten zaio ¿Zergatik esango?.. lantegian dala, jostundegian edo dendan dala,
egunerokoa irabazten duelako,

Gurasoak ongi aziak izan bazerate, aita eta amak bear dute izan zuen-
tzako lagunik onenak, lagunik xamur leyalenak eta zartzera etofiko diranean
eta miñez ikusiko dituzutenian, beren gorputzaren onari eta animaren onari
begiratzuz egiñalian lagundu.

Gixatxartzen dirala?.. Ala guziz ere Jaunaren esana ez aztu: «Semetxo,
zartzaroan aitari lanak arindu, eta bizi den bitartian etzazula naigabetu. Bere
gogoa aulduko bada ere, bere naia egin zazu eta ez aitari faf egin, bera baño
geiago zeralakoan» (Eccli 14, 15-III)

Oyartzuna.